



Leire Otaegi, Joxe Luis Urdangarin eta Unai Andueza, egitasmoaren aurkezpenaren. | URKIZU

Nazioarteko marketinean doako prestakuntza jaso ahal izango dute 15 langabetuk

Administrazio eta ekonomia gaietan lizentziatuek lehentasuna izango dute parte hartzeko

Itzea Urkizu

Tolosaldeko hamabost langabetuk, *Marketing eta nazioarteko salerosketa* prestakuntza espezializatua jaso ahal izango dute dohainik, Lehiberri eta Lanbide-aren elkarlanaren bidez.

Tolosaldea Garatzeneko kudeatzaile Joxe Luis Urdangarin, Lehiberri Foroko Unai Anduezak eta Tolosaldea Garatzeneko enplegu zentroko arduradun Leire Otaegik aurkeztu dute proiektua,

Lehiberri zentroan bertan, hain izango baitira zikloko saiolak ere.

Iaz Tolosaldeko enpresek dituzten gabezia eta behar nabarmenak identifikatu zituzten Tolosaldea Garatzen eta Lehiberriko langileek, eskualdeko eragilean laguntzaz. Lanbide eskualde bakoitzean enplegu plan bat egiteko beharra azpimarratu zuen, eta lan horren guztiaren ondorio da, nazioarteko master izaera duen ziklo hau.

Datorren maiatzaren 2an hasiko da zikloa, eta irailaren 27ra bitarte ariko dira lanean, astelehenek ostiralera, eta 08:00etatik 15:00etara.

Alde batetik, zati teorikoa izango du, eta praktikak ere egingo dituzte. Horrela beraz, zikloan

garrantzia nabarmena izango dute, merkatuekin eta marketinarekin zerikusia duten eduki teorikoek; besteak beste, merkatuen informazio sistemak, nazioarteko *marketing mix*a, nazioarteko negoziazio eta salerosketak eta nazioarteko komertzioen administrazioa hizpide izango dituzte lehen blokean.

Bigarren zati teorikoa, berriz, hizkuntzei berebiziko garrantzia eman diete antolatzaileek azaldu dutenez: «Kontuan izan behar da, prestakuntza jasoko duten ikasleak nazioartean lan egiteko prestatu direla, beraz, hizkuntzek garrantzia handia dute». Bide horretan, nazioarteko salerosketetarako ingelesarekin hasiko dira, edo *business english* delakoarekin. Dena den, «Tolosaldeketik gertuen dagoen merkatu naturala Frantzia dagoenez», frantsesak pisu handiagoa izango duela, eta 140 ordu eskainiko dizkiotela azaldu du Unai Anduezak.

Azkenik, zikloko zati praktikolari ekingo diote. Anduezak azal-

du duenaren arabera, «teorikoki ikasi dutena Lehiberri burutzen dituen nazioarteko jarduerenkin uztartzea izango da helburua, eta praktikak kasu errealek aztertuz egingo dituzte, nazioarteko misio komertzialen esparruan».

Ikasle espezializatuak

Marketing eta nazioarteko salerosketa formakuntzan parte hartzeko, profil zehatz bateko ikasleei lehentasuna emango diete arduradunek, Leire Otaegik nabarmendu duenez: «Lanbide-aren diru laguntzaren bidez abiarazitako egitasmoa denez, langabetuei zuzenduriko zikloa da, eta Lanbide izena emanda egon beharko dute parte hartzaileek. Horrez gain, administrazio eta ekonomia gaietan lizentziatuek direnek, nahiz ekonomia zuzenbidean eta ingeniartzetan lizentziatuek, lehentasuna izango dute». Hala ere, nazioarteko salerosketan esperientzia dutenen profilak ere kontuan izango dituztela azpimarratu dute.

Aipaturiko espezialitateetan tituludunak izatearekin batera, ingelesaren ezagutza ertaina ere eskabideetako bat da, eta beste hizkuntza batzuen ezagutza ere kontuan izango dute. «Azken fi-

nean, profil komertziala izatea ezinbestekoa da, lurralde bakoitzean merkatuak oso desberdinak direlako, eta guztietan mugitzen jakin behar delako», gaineratu du Anduezak.

Ikastaroan izena emateko, Tolosaldea Garatzenekin harremanetan jar daitezke interesa dutenak, Lehiberri zentrorra bertara joanda, edo 943 65 45 01 telefonora deituta. Era berean, lehiberri@lehiberri.net helbide elektronikora idatzita ere informazioa jaso ahal izango dute.

Zikloak, ordea, hamabost laguntzako eskaintza beteko du, eta beraz, izen emate gehiago ja-

Merkatuen inguruko edukiak eta hizkuntzak jorratuko dituzte zikloko zati teorikoa

Lehiberri nazioarteko misio komertzialetan zati praktikoa landuko dute

soz gero, Lanbide, Tolosaldea Garatzen eta Lehiberriko arduradunek aukeraketa bat burutuko dutela nabarmendu dute, ezaugarri eta esperientzian oinarrituta.

ETEen aholkularitzarako diru laguntzak abian dira

‘+Innova’ txeekeen egitasmoak enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea du helburu

I. Urkizu

Hiru langile baino gehiago dituzten ETEetan (Enpresa Txiki eta Ertainetan), lehiakortasuna hobetzeko helburua dute +*Innova* txeekeen diru laguntzek; abian da jada izen ematea.

Txeke hauek ETEei beren negozioa hobetu ahal izateko zerbitzu berezituak eskaintzen dizkiete, besteak beste, jarduera berri-

tzaileak sortu eta lehiakorragoak izateko. Horrela, diru laguntza jasoko duten zerbitzuak, aholkularitza zerbitzuak izango dira, soluzio azkarrak, egitasmoak, hausnarketak eta bezero-hornitzaile harremanak hobetu ahal izateko; www.spri.es webgunean azalpen zehatzagoak aurki daitezke.

ETEek gehienez ere hiru zerbitzu kontratatu ahal izango dituzte, eta txeeke bakoitzak 500 euroko balioa izango du; enpresek, berriz, 2.000 euroko kostua duen zerbitzua jasoko lukete.

Izen ematea ekainaren 7ra bitarte izango da zabalik, 943 65 45 07 telefonoan edo lehiberri@lehiberri.net-en, aurrekontua lehenago amaitzen ez bada.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Autobus gidaria. Edozein lane-tarako, autobusa gidatzeko baime-na duen gizon esperientzia-dunak bere burua eskaintzen du. 677 88 42 78.

ALOKAGAI

Etxebizitza. Amezketan, alokairuan jartzeko etxebizitza bat eskaintzen da. 645 345584.

www.inmosalbide.com



SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Baserría berritu berria. 125m²-ko bi solairu ditu. 25 m²-ko terraza. Terrenoa, 110.000m². 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldia, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

Donostia. Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m² ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria: 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Udal ordezkariak Oporrak Bakean ekimenarekin bat egiteko eskatu dute

Saharako haurrak bi hilabetez Tolosaldera ekartzeko, gizarte zerbitzuekin jarri behar da harremanetan

Asier Imaz

Tolosaldea Sahararekin elkartak, hamalagarrenez, Oporrak Bakean egitasmoa antolatu du. Eskualdeko hainbat udal ordezkariak, herritarrei ekimenean parte hartzeko eskatu diete, egitasmoarekin bat eginez, beste behin ere.

Ekimen honen bidez, saharar errefuxiatu kanpamentuetan jaio eta hazi diren 7 eta 12 urte bitarteko haurrak bi hilabetez Tolosaldera etortzen dira. Udal ordezkarien esanetan, «desertuan, udan 60 gradu inguru egiten ditu, eta Tolosaldean egiten duten egonaldiaren ostean, indarrak hartzen dituzte, eta bitamina nahikoa hartu, negu hotzari aurre egiteko».

Urtero bezala, neska-mutil hauek ekaina amaieran edo uztaile hasieran etorriko dira, eta iraila bitarte eskualdean egongo dira. Horretarako, ordea, Tolosaldeko familia desberdinak behar dira, beraien etxeetan gazte



Tolosaldeko udal ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten atzo, Tolosaldeko udaletxean. A. IMAZ

hauek egon daitezten. Udal ordezkariak azaldu dutenez, «eman beharreko bakarra lotarako toki bat da, eta jasotzen dena, berriz, asko».

Arrazoi hauengatik, besteak beste, Tolosaldeko udal ordezkariak familiei dei egin diete: «Animatzeko esan, eta beraien artean haur hauetako bat jasotzeko. Horretarako, interesatuek, eskualdeko udaletako gizarte zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan, gero, dena bide beretik koordinatu ahal izateko». Opo-

rrak Bakean ekimenean denek parte hartu dezaketela esan dute, horretarako soilik gogoia izan behar dela gaineratuz.

Urteroko ohitura

Oporrak Bakean egitasmoa ohi-tura bilakatu da eskualdeko familia askorentzat, eta hauen elkar-tasunari esker, eskualdetik gazte saharar ugari igaro dira. «Osasunez bete, lagun berriak egin eta indarberrituta joaten dira beren lurraldeetara bueltan. Epe honetan, mediku frogak eta kontrolak

pasatzeko aprobetxatzen da, beraien kanpalekuetan egin ezin dituzten frogak egiteko, hain zuzen», esan dute Tolosaldeko udal ordezkariak. Hauen esanetan, «elkarbizitza hau bi aldeentzat da aberasgarri». Sahararen egoera ez dute ahaztu nahi izan: «Duintasunez beteriko herri hori garai gogorrek bizitzen ari da, eta garrantzitsua da azken boladan sentitu izan duten bakar dadearen horma botatzea, eta horretarako, Oporrak Bakean egitasmoak garrantzi handia du».

→ Laburrak

Kirol teknifikazio zentroan ikastaro berriak dituzte

TOLOSA Usabalgo kirol teknifikazio zentroak entrenamendu pertsonalizatuaren orduetgia zabaldu eta ikastaro berriak antolatu ditu, osasuna eta errendimendua bereiziz. Lehen multzoan, pilates, abdominal hipopresiboak, eta haurdunaldi ondorengo jarduerak fisikoa bezalako ikastaroak antolatu dituzte. Errendimenduari dago-kionean, entrenamendu funtzionala, TRX entrenamendua esekiduran,.... antolatu dituzte. Informazio gehiago edo izena emateko, bpxtecnificacion.es webgunean sartu behar da, edo 943 67 24 59 telefono zenbakira deitu behar da.

Hitzaldia, guraso izan diren edo izango direnentzat

ALBIZTUR Haur eskolan hitzaldia antolatu dute Albizturren, 2012, 2013 edo 2014. urtean guraso izan edo izango direnentzat zuzenduta. Hitzaldia udaletxe gainean dagoen haur eskolan izango da, hilaren 24an, asteazkenean, 17:30ean. Ekimenean haur eskola gertutik ezagutzeko aukera egongo da, eta izena emateko epea maiatzaren 2tik 13ra bitartekoa izango dela azaldu dute.

Odol ateratzeak asteartean izango dira

AMEZKETA Udaletik jakinarazi dutenez, odol ateratzeak asteartean egingo dituzte Amezketan, hilaren 23an, beraz. Kultur etxeko aretoan jarriko dute odol ateratzeak egiteko gunea, 18:30etik 20:30era bitarte. Udaletik herritarrei adi egoteko deia luzatu diete: «Odol emaille edo oraindik eman ez duzuenok, zita bat daukagu asteartean».

Udal batzordeen bilera astelehenean izango da

AMEZKETA Hirigintza, Kultura eta Ingurumena batzordeen bilera hilaren 22an, astelehenean, egingo dute Amezketan. Udaletxe bilkura aretoan 19:00etan elkartuko dira, eta herritar guztiak bertara gonbidatu dituzte. Besteak beste, ondorengo gaiak jorratuko dira batzordeetan: Obra txikiak; Amezketa S.L. ren okindegi eta gozotegi erabilerarako pabilioiaren irekiera baimenari buruzko txostena; Iturriondo eta Liño-Osiñeta lursailen segregazio eskaerari buruzko txostena, eta lur ez urbanizagarrietako lursailen itxirenen ezagugarrien inguruko kontsulta.

Sei emanaldi, XI. Antzerki Astearen barruan

Musika Tresnen Fabrika ikuskizunarekin hasiko da Zizurkilgo XI. Antzerki Astea, astelehenean

A. Imaz Zizurkil

Astelehenean hasiko da Zizurkilgo XI. Antzerki Astea. Udalak, sei emanaldiko egitaraua aurkeztu du, eta adin guztietako antzerkizaleek Atxulondon edo Iriarten ikuskizunekin gozatzeko aukera izango dute.

Musika tresnen fabrika-rekin hasiko da kultur eskaintza. Kortxea Jaunak eta Filomenak musika tresnen eta kantua gainera azalpenak emango dizkie 2-6 urte bitarteko haurrei. Atxulondon jarraitzaile ugari elkartzeko espero dute ikuskizun honetako bi pertsonaiek.

Afarirako txartelak salgai

Hilaren 22an hasiko den ekimena 27an amaituko da, Bakarriketa afarirekin. Jon Zubiagak Unai

↓ Egitaraua

APIRILAK 22, ASTELEHENA

■ **15:15.** *Musika tresnen fabrika* ikuskizuna, Atxulondo kultur etxean. 2-6 urte bitarteko haurrentzat.

APIRILAK 23, ASTEARTEA

■ **11:00etan eta 15:15ean.** *Jolas eta zilarrezko txartela* ikuskizuna, 6-12 urte bitarteko

Iturriagaren testuekin emanaldia eskainiko du Atxulondon. Afarira joateko txartelak 15 eurotan jarri dituzte salgai Iriarte Tabernan eta Atxulondon, bertan. Postrearekin batera etorriko da, beraz, *Buah Txabal* ikuskizuna. Garikoitz Kortabitarte gaztearen lekuan jarriko da Zubiaga. Tragedia bati aurre egin beharrean aurkitzen da Kortabitarte: mugikorra galdu du.

Zizurkilgo Udaletik eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte XI. Antzerki Astea.

haurrentzat, Atxulondo kultur etxean.

APIRILAK 25, OSTEGUNA

■ **11:00.** Pedro Mari Otaño Eskolako haurren emanaldiak. LH1eko ikasleek *Barraskilooa* antzezlan eskainiko dute, eta LH6ko ikasleek, euren aldetik, *Urrezko baloia* antzezlan taularatuko dute.

APIRILAK 26, OSTIRALA

■ **17:00.** *Sarean zintzilik* ikuskizuna, Iriarte Etxean.

APIRILAK 27, LARUNBATA

■ **21:00.** Bakarriketa afaria Atxulondo Tabernan. Jon Zubiagak eskainiko du emanaldia afalostean, *Buah txabal* bakarriketarekin.



Alaitz Ormazabal zinegotzia eta Ainhoa Larrea teknikaria, atzo. A. IMAZ

Luis Nazabal • Erlezaina

Udaberrian sartzearekin batera, erleen erritmoa areagotu egiten da, eta horrekin batera, erlezainena; liztor asiarraren mehatxuak «oso kezkatuak» ditu «asko ari baita zabalzen, eta kalte handia eragiten».

«Liztor asiarraren arazoa ez da soilik erlezainona, guztiona baizik»

Higo Terradillos Edoan

Askok hedatu al da gure erleanen asiarraren?
Gure zonaldetan bestetan baino gutxiago sartu da. Inon eta inguruetan, esaterako, askok ere gehiago dago. Izan ere, lehenak inguru hartan atzetan zituzten 200ean. Antza, Frantziara itzaso iritsi zen 2004an, eta bertatik da baldiz joan da. Askok hedatu da, eta min handia ari da egiten.

Nola jokatzen du liztor erlezainak?
Liztorra erlauntzaren kanpoan jartzen da, helikoptero baten moduan, hegatu eta geldirik. Kanpoetik barrura doan erlie harrapatzen du horrela. Hauek nekaturia etorri ohi dira, eta horregatik oso erraz harrapatzen dituzte. Barruan daudenak, berriak, kanpoan liztorra dagoela ohar izaten dira, eta ez dira kanpoan ateratzera auzartzen. Ondorioz, kanpoan ateratzen ez badira, janik gabe geratzen dira, eta hil egiten dira. Udaberriaren aldetik, erlie ez bada kanpoan ateratzen, liztorra barrura sartzen da, eta kalte handia egiten du.



Zein ondorio ditu liztorrak erleeari eragiten?
Erleak gutxituz joaten badira ekosistema min handia egiten dute. Desoreka sortuko litzateke, izan ere, erliek gabe polinizatza-rik ere ez legoke. Beraz, pentasa, horregatik, argi utzi behar da, asiar liztorrearen ez dela soilik erlezainon arrosatzen, baizik eta giza-eremuan.

Liztorri burri egiteko zein neurri hartzen dituzte?
Gipuzkoako Erleazainen Elkarteak liztorrak soilik erakarriko dituen eremotan bertan sartu behar da. Horrekin soilik liztorrak erakarririk irariteko, eta ez erleak, tximelak edo galmonteko intsektuak. Horregatik, udalokinetan aldundiariek ere hitz egiten dute liztorrak agertzen direnean zer egin behar den. Udak bakotzak talde bat osatu behar da, udal-tzaingoan, suhiltzaile eta erlezainekin, eta kabai bat agertzen denean protokoloa bat martxan jarri.

Beraz, norbaitek liztor kabaien bat aurkituko bahu udalari esan behar dio, eta udalak protokoloa jarriko lioke aldetik. **Feromona hori sortu bitartea, zer ari zaretze egiten erlezainak liztorra uxatzen?**
Feromona horrekin, zaltsutza-rik gabe, lan handia aurrezko gema. Bitartean, liztorrak nahiko ongi erakarriz dituen tranpa bat jartzeko azaldu digute elkar-tekik. Ardo zuriz, garagardez eta sivepeze osaturiko nahasketak jar-ten dugu onietan, alho bateson zuloa dutelarik. Barrura sartzen dira ussianak erakarritu, eta behin barruan direnean ez dute atzer-tesko modurik izaten. Marroxoan hasi ginen horiek jartzen. Oso gar-rrantzitsuak da marroxoan,

apirilaren eta maiatzaren tranpak jartzeak, erortzen diren gehienak erreginak izaten baitira. Geroz eta erregin gutxiago egon, orduan eta liztor kabi gutxiago egongo dira.

Liztor asko erortzen al dira tranpa-tan?
Hasieran gurxi batzuk harrapa-tzen zituen, baina orain gehiago, Erlezain batzuk, zonaldearen arabera, asko harrapatzen dituz-te. Harrapatutako liztorrak ber-tan uzten ditugu, kanpoko lizto-rrak gehiago erakartzen dituzte-la baituzte.

Zer sentitzen duzue erlezainek ho-rrak mehatxatzen aurrean?
Inpotentzia handia sortzen du egoera honek. Izan ere, guk erle-zainok tranpak jartzen ditugu, baina, oraingoz ezin dugu ezer gehiago egin.


Nolako da asiar liztorra?
Erleak baino hiru aldiz handiagoa da kolore beltzean, eta inguruetan hanka hortekokin. Bertako lizto-rraren aldean, beltzagoa da, eta hego meheagoak ditu. Hemengo gurgugua da.

Gure erreginaren aldean, zein da liz-torra?
Oso erraz egokitzen da, eta horreg-atik asko eta asko ari da zaba-ltzen. Gainera, ez du eraso egin diezaiokkeenik topatu. Ez du ez txoririk ez ezer aurka egin diezaiokkeenik. Astan, esaterako, erle-ek ikasia dute nola egin taldean oraso liztorri, baina hemen ez dakite erliekin hori egiten.

Erleari kalte eragiten dien faktore gehiago badira, akaroak, esaterako, bai, min handia egiten dute. Ur-tero urterero euren aurkako senda-gaia jartri behar izaten ditugu. Erreginari zuzenean eragiten dio, eta ondoren jaitzen diren erleak kutsatuta jaitzen dira, elbarri egongo balira bezala. Oso mitigarriak izaten dira, baina sendagaiekin sursu egitea lor-tzen dugu, neurri baten behin-tzat. Liztorrekin alderatuta, ez du hain besteko kalterik egiten.


Udaberrian sartu berriren gaudu. Zein izaten da erlezainena?
Udaberria tristen denarikoa behe-ko kaxa prestatzen da, garbituta argizari berria jartzen da. Erle gehienak indarrez beharko liz-to-rrak dagoeneko, eta orduan guk-ko alza jartri izan behar dute, bertan ezitza jartri dezaten. Oso gar-rrantzitsuak da erlauntzak txukun eta garbi mantentzea, gutxi-tasunik ez izateko. Guk milaloro estia bitzen dugu, eta bilbeta abuztu bukasera aldera egin ohi dugu. Es-tia bildu ostean, negurako presta-zen da gurtia.

Nondik datorkizu erleenganako afi-zioak?
Aita hasi zen aspaldi, eta ni berari laguntzen egoten nintzen. Piska-naka ikasten joan nintzen, aitari ikusi, ni nire kabuz irakurriz edota Erlezain Elkarteak antola-turiko ikastaroetara joanez. Egun, aita eta biok artzen gara, eta 15 erlauntza ditugu Edoan-ten.



Villabonan kabi bat hutsik...

Aurten oraindik ez da liztor kabirik agertu



L. Terradillos Villabona

Liztor asiarraren kalte handia ari da eragiten, erleak gogor erasotzen baititu. Gure inguruetan aise egokitu denez, errez ari da zaba-ltzen, eta gutxienez Euzkal Herri-osoan ari da tristen. Tolosaldera iritsi da, erlezainek jarririkako tranpetan argi ikusten denez. Ha-laber, liztorrearen hainbat kabi ere aurkitu dituzte. Villabonatan atzetan dituzte, baina tamaina handikoak dire-nak hutsi daudela, eta ondorioz ez dutela arrikurik alderazi du Udaltzaingok. «Horiek laz huts-tutakoak dira, gauden garaian oraindik kabek tamaina txikiak izaten dituzte, eta oraindik ez dugu abururik jaso», azaldu dute. Oso garrantzitsuak da kabiak deusotze dute «kabi handi ho-rietako baten 30-40 erregina egon duteke, eta ondoren bakoi-tzak kabi berrak jarri dezake».

• Bideoa, ikusi, Luis Nazabal er-leazainaren azalpenak Edoango bere erlauntzetan.

Tolosa • Luis Nazabalek Edoan dituen erlauntzetako bat. Kanpoan erleak daudela, eta ondoren, ardo zuriz, garagardez eta sivepeze osaturiko tranpa. Kanpoan egon ohi da zain liztor asiarrek aurkitu dituzten erle erlauntzetan. Lerro hauek gaur egun, biki dagoen asiar liztorre eta erle bat. Erleak baino hiru aldiz handiagoa da, eta kolore beltzekoa. Behean, tranpa harrapatutako liztorrak.



Joseba Otaegi ◊ Aizkolaria

Igandean, Antonio Senosiainen aurka 6.000 euroko apustua jokatu du Tolosako Zezen plazan. Zertxobait urduri dago, baina gogoz.

«Amaitu arte lan erregularra egitea da apustu bat irabazteko gakoa»

Mikel Iraola Zizurkil

Zizurkildik aldendu samar, naturaren erdian, landa eremu berde batean dagoen baserri baten ondoren entrenatzen du Joseba Otaegik (Zizurkil, 1983). Behin marruak eta txorien txioak dira nagusi, egurra kolpatzen hasi den unera arte. Kolpe bakoitzaren oihartzuna balarako basoetan zehar galtzen da. Lasai hasi, eta gogorrago amaitu du. Igandean, Tolosako zezen plazan Antonio Senosiainen aurka jokatu duen apustua du buruan. Besterik ez.

Zer dela eta luzatu zizun apustua Senosiainek?

Hori berari galdetu beharko diozue. Lan polita egiteko gai dela ikusiko zuen, eta ni, berriz, garaitzeko moduko aurkaria...

Zerk butzatu zituen, baina, apustua onartzera?

Batez ere egin beharreko lanak,

hogei kana erdiko lanak, gehien gustatzen zaidan egurra da.

Zer sentitzen du aizkolaria batek apustu bat sinatzerakoan?

Karga handia. Ordura arte desafioka egoten gara, eta saltsa hori gustatzen zaigu, baina behin sinatu ondoren, egun osoan zehar hori darabilkizu buruan. Gutxienez, ez dut asko itxaron behar izan, duela bi hilabete sinatu baino lehen apustua.

Orain arte jokatu dituzun apustuetatik ze balantze daukazu?

Hau bosgarrena izango da. Jokatutako azken apustua galdu egin nuen Zalduaren aurka, eta gainontzeko hirurak, irabazi.

Duela bi hilabete sinatu zela esan duzu. Nola sentitu zara denbora tar-te horretan?

Oso ondo. Binakako txapelketan zentratuta nongoen garai hartan. Behin hori amaituta, hilabete eta erdian nahiko denbora izan dut



M. IRAOLA

patxadaz prestatzeko. Proba polita da eta prestatetei dagokienez, ongi aritu naiz.

Nola prestatzen da horrelako apustu mota bat?

Aizkoran zentratu gara gehienbat. Astean birritan entrenatu dut aizkorarekin. Nahiko entrenamendu gogorrak izan dira, esizentzia handikoak. Azken hamabost egunetan, berriz, saio motzagoak eta bizigoak egin ditugu. Gainontzean, astean bitan gimnasia jartzen eta mendian ibiltzen saiatzen naiz, fondoa hartzeko.

Desberdintasunik al dago, horrelako apustu bat edo txapelketa bat prestatzearen artean?

Alde handia dago, bai. Txapelketak proba motzagoak eta esplosibogoa dira, batez ere binakakoak. Gehienez hamar edo hamabi minutuko lanak egin behar izaten dira. Apustuetan, ordea, lasaigo hartu behar da lana. Seguraski ordutebez egon beharko duzue lanean igandean. Beraz, desbertintasuna handia da.

Mentalki prestatzea ere eskatzen al du apustu batek?

Txapelketekin alderatuta gauza on bat dute apustuek, laguntzaileak. Ondoa bi laguntzaile izateko aukera daukazu, bat aizkorak emateko, eta bestea, makilarekin non ebaki esanaz eta azpiko ezpallak kenduz. Babestuta sentitzen zara, beraz, ondo. Aldiz, txapelketetan bakar bakarrik egotea tokatzen da. Apustuetan presio handia da. Apustuaren presio handia da, dirua eta jendea daudelako tartean, baina ni ondo nago.

Fisikoki nola aurkitzen zara?

Ondo, gogo askorekin, eta hori da garrantzitsua. Gero agian egunean bertan gauzak ez dira nahi bezala ateratzen, baina horren

aurka ezer gutxi egin daiteke. Ni, behintzat, ondo sentitzen naiz.

Gainera, urrezko aizkorako binakako txapelketa irabaztekin zator...

Bai. Horrek ere morala ematen dizu. Baina lehen esan dudana bezala, bi mundu desberdin dira binakako txapelketa eta apustua, eta erreferentzia gisa ez dute ezertarako ere balio.

Nola ikusten duzu Senosiain?

Ez dut aspaldian ikusi. Beti kiloz gehitxo ibili da, baina Olasagastiren aurkako apustu batean ikusi nuen, argalduta ikusi nuen. Dirudenez, berak ere serio hartu du apustua. Lan asko egin beharko du irabazteko.

Egurak erdibana eramango dituzue. Zer aurkitzea espero duzu?

Guk egur normalak eramango ditugu. Senosiainek, berriz, atzo

«20 kana erdiko lana izateak butzatu zidan apustua onartzera; gustura sentitzen naiz»

«Urduitasuna nabari dut azken egun hauetan, baina ondo nago, gogo askorekin»

[herenegun] Euskadi Irratian esan zuenez, egur gogorrak komeni zaizkiola esan zuen, lana luzatzearen. Beraz, pentsatzen dut egur gogorrak eramango dituela, ikusiko dugu. Horrek ere esan nahi du, lan ona egiteko gai ikusten dela, eta guk ondo prestatuta joan beharko dugula.

Zeintzuk izango dira irabazteko gakoa?

Apustuaren gakoa hasieratik bukaerara lan erregular bat egitea

izaten da beti. Txapelketetan, bakkari izaten zarenez, askotan elkar botatzera ateratzen gara, eta buruz ere errazago erori ohi gara. Apustuetan, ordea, laguntzaileak izanda, errazago izaten da lan erregular eta konstante bat egitea. Hor egongo da gakoa, lana ondo osatzean.

Urduitasuna nabari al duzu orain?

Bai, zertxobait bai. Eguna gerturatzten ari den heinean nabari da. Eta ere gehiago, bezperan plazan egurrak jartzen direnean. Tripan horrelako kilika berezi bat sentitzen da.

Apustuaren ondoren Urrezko Aizkorako binakako txapelketa dator. Zein helburu duzu?

Egia esan ez dakit, oraingoz ez baina iz horretan pentsatzen ari. Aspaldian ez zait batere ondo eman binakako txapelketa. Lan motzak dira, eta adar batekin topo eginez gero, kanpoan gera zaitzake. Orain, apustuan besterik ez dut pentsatzen, eta ondoren etorriko dira ondorengoak.

Norikusten duzu Urrezko Aizkorako irabazteko favoritu nagusi?

Betikoa, Floren Nazabal. Oso zaila da bera garaitzea. Atutxa ere ondo ibiltzen da, baina uste dut Nazabalek irabaziko duela.

Aizkolaria izateaz aparte, bertsozale ere bazara. Ausartuko al zinateke igandeko apustuari begira bertso bat botatzen?

Sentitzen dut, baina orain ez nago bertsoatarako. Beste batean akasoa.

■ **Bideoa.** Ikusi, Otaegiren adierazpenekin osatutako bideoa, eta nola entrenatzen duen igandeko apustura begira.



BERRIA egunkarian udan
KAZETARITZA PRAKTIKAK egiteko deialdia

PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 14an
TOKIA: Andoaingo Martin Ugalde kultur parkea.
ORDUA: 16:00etan

BIZKAIAN

EGUNA: maiatzaren 14an
TOKIA: EHUko Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 30. gelan
ORDUA: 12:00etan

ARABAN

EGUNA: maiatzaren 14an
TOKIA: BERRIaren Gasteizko egoitzan (Bizenta Mogel, 6, behea).
ORDUA: 09:30etan

NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 14an
TOKIA: BERRIaren Iruñeko egoitzan (Iratxeko monasterioa, 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerria)
ORDUA: 10:00etan

Probara curriculuma ekarri behar da

→ **Laburrak****Atsedena taldeko udalekuetan izen ematea**

HEZKUNTZA ▶ Atsedena taldeak, udako kanpaldia antolatu du uztailaren 26tik abuztuaren 4ra, 8 eta 16 urte arteko gazte-oxentzat; Errioxako Peñaloscintos herrian izango da. Izena emateko, deitu maiatzaren 10a baino lehen, 635 74 64 47 edo 649 22 52 00 zenbakietara.

Zine ziklo berria eta zozketa martxan

KULTURA ▶ Zine ziklo berria martxan da, eta bihar hasiko dira filmak. 12 euroren truke, saio guztiak ikusteko bonuak salgai dira, beraz. Horrekin batera, hurrengo zine zikloko bi film ikusleek aukeratu ahal izango dituzte, www.tlsbat.net web atariaren bitartez. Parte hartzaileen artean bi zine bonu zozketatuko dituzte.

Skate ikastaroak izango dira larunbat goizetan

KIROLA ▶ Tolosako Skate Taldearen laguntzaz, Skate ikastaroak hasiko dira, bihar, skateparkean, parte hartu nahi duen edonorentzat. Saioak larunbat goizetan burutuko dituzte, 11:00etatik 13:00era bitarte, eta izen emateak kultur etxeko Topagunean egin beharko dira.

Joxelu Anduezarri omenaldia egingo diote

GIZARTEA ▶ Joxelu Andueza zenari omenaldia egingo diote, S. Bernardo Eskaut taldeko kide ohiek eta familiak. Maiatzaren 4an, Uzturre inguruan, 16:00etan, bere omenez pago bat landatuko dute. Ondoren Zerkausian afaria egin nahi dute, 25 euroren truke. Bertara joan nahi duenak apirilaren 26rako dirua sartu beharko du Euskadiko Kutzako honako kontu zenbakian, izena jarriz: 3035 0156 811561029974.

Benito Lertxundiren abestiak ahots gazteen bitartez entzuteko emanaldia

Kilometroak 2013 egitasmoaren barruan, lau haur abesbatzek eta Et Incarnatus orkestrak eskainiko dute

Imanol Garcia Landa

Et Incarnatus orkestrak eta lau haur abesbatzek, tartean Laskorain ikastolako Lask abesbatza, kontzertua eskainiko dute Benito Lertxundiren abestekin Tolosako Leidor aretoan. Emanaldia hilaren 26an izango da, 20:30ean, eta Kilometroak 2013 egitasmoaren barruan antolatu dute. Unai Igarua Kilometroak 2013ko koordinatzaileak azaldu duenez, «hilerio emanaldi indartsu bat antolatzen ari gara eta kontzertu hau izango da hurrengoa». Lask abesbatzaz gain, Gasteizko Crescendo abesbatza, Zegamako Orkatx Txiki haur abesbatza, eta Iparraldeko abesbatza bat etorriko dira, azken hau Donibane Garazi, Baigorri eta Hendaiako eskoletatik sortua.

Miguel Zeberio Et Incarnatus orkestrako zuzendariak emanaldiaren garrantzia nabarmendu du: «Benetan interesgarria da proiektu hau. *Ahora!* leloa du Kilometroak 2013k eta hizkuntza bat *ahora* ez bada eramaten, zentzurik ez du. Hemen euskararekin eta oro har gure kulturarekin mugak baditugu, zer esanik ez Iparraldean. Benetan garrantza da Iparraldean gure kulturak zer oztopo dituen ikustea».

Iparraldean haurrekin euskarazko abestiak kantatzeko proiektuaren berri eman du Zeberio: «Eskoletako haurrekin osatutako abesbatza da, eta bi zuzendari ditu. Horietako batean, Joxean San Miguelek, egin ditu moldaketak». Orkestra profesional batekin egin nahi zuten proiektua: «Erakutsi nahi zuten euskaraz eginikoa eta bertako



Kontzertuaren aurkezpena egin zuten, atzo, antolatzaileek eta parte hartzaileen ordezkariak. I.G.L.

kulturarekin lotura zuen emanaldia, eta maila handikoa izatea. Laguntza bat jaso da eta bi kontzertu eman dira Iparraldean, eta orain honek jarraipena du Hegoaldean, lau kontzerturekin».

Proiektuaren helburua azaldu du Zeberio: «Oztopo guztien gainetik, Iparraldeko haurrek berea ikustea euskaraz gauza eder bat egin dezaketela, eta beste haurrekin harremanak egiteko aukera emango die». Emanaldi «oso polita» izango dela esan du Zeberio, «abesti eder eta ahots ederrekin».

Naiara Mintegia Lask abesbatzako zuzendariak azaldu duenez, «oso pozik gaude proiektu honetan parte hartzeagatik. Kilometroak antolatzen dituzten ikastola guztiek ez dute beti aukera izaten urtean zehar egiten diren emanaldietan zuzenean parte hartzeko, eta gure abesbatzak aukera hori du proiektu honekin». Bestalde, Et Incarnatus orkestra-

rekin batera proiektu horretan parte hartzea suposatzen duena nabarmendu du: «Ez da lehenengo aldia Et Incarnatusekin ari gara, eta guretzako beti gozamen da horrelako talde profesional batekin aritzea. Beste abesbatza batzuekin parte hartzea oso aberatsa da, bai niretzat eta baita ikasleentzat ere».

Leidor aretoan egingo den emanaldiaren sarrerak 10 euro balio ditu eta Laskorain ikastolako bi eraikinetan, Kilometroak 2013ko dendan, Leidorreko leihatilan eta www.kuttasarrerak.net atarian eskuratu daitezke.

Bideo kliparen grabaketa

Kilometroak 2013 egitasmoak deialdi berezia egin du igandera. Izan ere, bideo klip ofiziala osatzen ari dira eta igandean azken zatia grabatuko dute, Tolosako Zerkausiaren gaineko terrazan. Horretarako, 200 pertsona inguru behar dituzte, adin eta ofizio gu-

tietakoak. Pertsona bakoitza bere ofizioko jantziarekin joateko deialdia egin dute. 10:00etan elkartuko dira.

Bideo lehiaketa

Kilometroak 2013ko Ikasle Bartzordeak antolatu duen *Ahora!* Bideo Lehiaketara lanak aurkezteko epea maiatzaren 10ean amaituko dela gogora ekarri dute antolatzaileek. Beraz, beste behin parte hartzeko deialdia egin dute. Lanak Laskorain ikastolako idazkaritzan utzi edo kmk13lehiaketak@laskorain.net helbidera bidali daitezke.

■ **Bideoa.** Ikusi, kontzertuaren aurkezpenean Lask abesbatzako kideak abesten.



**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	LAINGOTUA
ARRATSALDEA	OSTARTIAK
BEROENA	14°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia: Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Ibarra.** Egunkoia: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Ibarra.** Ahozko ingeles eta frantses eskolak dohain antolatu ditu Ibarra Udalak. Urritik maiatzera izango dira, eta Ibarra errotatuta egotea, eta 1997an edo lehenago jaioa izatea beharrezkoa izango da. Izena emateko aukera hilaren 30a bitartean dago zabalik. Euskara zerbitzuan edo kultur etxean eman daiteke. Informazio gehiago nahi duenak, 943 67 38 27 telefono zenbakira deitu dezake.
■ **Irura.** Irurako Kirol Astearen barruan, Gaztelekutik irteera egingo dute Tolosako kiroldegian dagoen rokodromora bertan kirola egiteko.
■ **Tolosa.** Naturaldiaren Jardu-naldietan, 19:30ean, Uraren pribatizazioa, austeritatea ala negozioa? hitzaldia izango da Pedro Arrojoaren eskutik. Gazteleiaz izango da, Topic zentroan.
■ **Tolosa.** Atsedena Taldeak, urtero bezala, udako kanpaldia antolatu du uztailearen 26tik abuztuaren 4ra, 8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat. Aurten Errioxako Peñaloscintos herrian izango da. Izena emateko edo informazio gehiago lortzeko deitu maiatzaren 10a baino lehen 635 74 64 47 edo 649 22 52 00 telefono zenbakietara.

ANTZERKIA

■ **Larraul.** *Ez gara Palestinaz ari antzezlan izango da*, Larraulgo elizan. 20:00etan hasiko da emanaldia. Imanol Kamio, Ander Lizarralde, Unai Muñoa eta Aitor Atxegak osatzen dute laukotea. Antzerkia, bertsoak, musika eta poesia uztartzen dira.

MUSIKA

■ **Asteasu.** Iturriondo jatetxean, 22:00etan, gaubela keltiarra izango da, Limerick taldearen kontzertuarekin. EBIA kultur taldeak antolatu du.
■ **Tolosa.** Bonberenean, Diner eta Muy Fellini taldeen kontzertuak izango dira, 22:30etik aurrera. Sarrera, 8 euro ordaindu beharko da.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Aranburu jauregian, Naturaldia 2013ko *Ura, Ibaiak eta herriak* erakusketa izango da ikusgai.
■ **Amasa-Villabona.** Euskal Herriko musika tresnen erakusketa dago Gurea aretoko erakusketa gelan.

BIHAR, APIRILAK 20

DEIALDIAK

■ **Alegia-Amezketeta.** VI. Ñañarri Rallyesprinta izango da Irurako Ikastolak antolatuta. Alegia eta lehen 635 74 64 47 edo 649 22 52 00 telefono zenbakietara.

ko da proba, eta errepidea 14:00etan itxiko da.

■ **Tolosa.** Skate ikastaroa hasiko da Tolosako Skateparkean nahi duen guztiarentzat. Saioa 11:00etan hasi eta 13:00ak arte izango da.

■ **Urkizu.** Jakoba Errekondo landareetan aditua izango da, 15:30etik aurrera, Tolosako Urkizu auzoko Alurtxiki elkartearen.

MUSIKA

■ **Asteasu.** Arkupetako erromeria izango da 18:00etatik aurrera, Tapia eta herriko trikitilarien eskutik. EBIA kultur taldeak antolatu du.

ANTZERKIA

■ **Tolosa.** Haurrei zuzendua den *Sialuk hartz txikiaren bidaia* emanaldia, 18:30ean, Topic-en.

ZINEMA

■ **Amasa-Villabona.** Gurea aretoan, *Agur Esatea* filma ikusteko aukera izango da, 22:00etan.
■ **Tolosa.** Leidor aretoan, *Los últimos días* filma eskainiko dute, 19:30ean eta 22:30ean.

ETZI, APIRILAK 21

KIROLA

■ **Irura.** Irurako Kirol Astearen

barruan, 10:30ean, Bailarako IV. Kross Herrikoa izango da.

16:30ean, Ametsa Pilota Elkar-teko ikasleen arteko partidak jokatuko dira. Beteranoen Xare Txapelketako finalak eta Share Elkarte Sariko finalak jokatuko dira.

■ **Tolosa.** Joseba Otaegi zizurkildarra eta Antonio Senosiainen arteko aikora apustua, 12:00etan, Tolosako zezen plazan.

MUSIKA

■ **Asteasu.** EBIA kultur taldeak antolatuta, 12:00etatik aurrera kalean ibiliko dira Andoaingo Musika Bandako kideak. Aldiz, 12:30ean, kontzertua eskainiko dute frontoian.

ZINEMA

■ **Amasa-Villabona.** Gurea aretoan, haurrentzako den *Oz, un mundo de fantasía*, 17:00etan ikusteko aukera izango da. Eta 19:30ean, *Agur Esatea* filma eskainiko dute.

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, 17:00etan, *Arthur eta munduen gerra* haurrentzako filma izango da. 19:30ean *Amor y letras* filma eskainiko dute eta 22:00etan *Los últimos días* ikusteko aukera izango da.

Agurrak



Zorionak!

Urte askotarako, maite zaitugun guztion partetik

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● agurrak

Urte askoan!
Lander Huarte (Irura). Gaur 7 urte! Zorionak aitona-amonan, osaba-izeba eta Amaiurren partetik

Mauka berria

Egonaldi erromantikoa Mutiloako Ostatuan; afaria, gau bat eta gosaria

Mutiloako plaza z/g
MUTILOA 20214 - GIPUZKOA
Tel.: 943-80 11 66
mutiloakoostatua@yahoo.es

Prezioa **41,5€**

www.mauka.eu

berria taldea

ARKT Arkitalde

IGOGAILUA JARRI NAHI? EZINEZKOA DELA USTE DUZU?

Guk aurkituko dugu intzenbide

ONA ETA MERKEA

AR